

GEHIEN EZARTZEN DUDAN ZIGORRA

2011ko urriaren 8an, Luis Mingallónek artikulua argitaratu zuen El País-en Emilio Calatayud Granadako adingabeentzako epaileari buruz, izenburu hau zuena: "Gehien ezartzen dudana zigorra: neska-mutilak DBH gaitzera zigortzen dituzte". Artikulu hartan, haren epai batzuk jasotzen ziren:

- "50 lan-ordu ematea komiki bat egiten, non azaldu behar baitzuen zergatik ibili zen motorrean aseguru gabe. Baita pare bat bisitaldi ere Traumatologiako planta batera.
- Basoan zuhaitzak sartzea, jarduera piromanoak izan eta gero.
- Behartsuen artean janaria banatzea, etxegabe bati tratatu txarrak emateagatik.
- Eraikin publikoetako kristalak garbitzea jende askoren aurrean, mutiko bat jotzeagatik zergatik eta begiratu gaiztoa egin omen ziolako.
- Mila orduan informatikako eskolak ematea beste ikasle batzuei, zenbait enpresaren sareetara sartu eta 2.000 euroko kalteak egiteagatik.
- Suhiltzaileekin lan egitea paperontziak erretzeagatik".

Zeregina

Jarduera epaiak deskribatzea eta analizatzea da, zehazteko ea hezkuntza-neurririk ageri duten, eta nolakoak.

Lan-gida

- 1.- Berrikusi zer estrategia ageri diren taulan kontrol positiborako, eta argitu zalantzak jokaera desegokiari eta diziplina-arazoei buruzko materiala berrikusiz
- 2.- Ondoren, balioetsi epailearen epaiak, eta esan hezkuntza-estrategiaren bat erabiltzen ari den.

GOGOETARAKO ETA PRAKTIKARAKO JARDUERAK

KONTROL POSITIBORAKO ESTRATEGIAK

Komunikazio ez-hitzezkoa erabili	Jokaera kontrolatu edo inhibititu norbera bertan egonez, begirada erabiliz atzera eragiteko
Komunikazioa errazteko estrategiak erabili	Gelditu dadila eskatu, araua edo espero dena gogorarazi estrategia asertiboen bidez (errepikapena...)
Urrezko araua	Urrezko araua erabili (elkarrekikotasuna): ez egin besteei zeuretzat nahi ez zenukeenik; enpatiaren bidez: nola sentituko zinateke baldin eta...?
Jokaera desegokitik desbideratu arreta	Umorea erabiliz, ustekabea
Bestelako jokaera bat saritu, jokaera desegokiarekin bateragarri ez dena (aurrez)	Pizgarriak, protagonismoa, erantzukizunak
Zigor positiboak	Ondorio logikoak, ordaina
Erreparazio neurriak	Kaltea/mina